

GIL 122 Ozioko antiklinala



Ozioko antiklinalaren panoramika errepidetik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 39' 24,67" N
Long.: 2° 49' 20,58" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 514.557,44 m
Y: 4.722.725,31 m



Nola iritsi

Miranda de Ebrotik 10 km-ra (E) eta Gasteiztik 40 km-ra (S) dago Ozio. Zanbrana herritik, zeina Gasteiz-Logroño (N-124) errepidean baitago, heltzen da azkarrena. Zanbranak 5 km-ra dago, Urizaharrera doan A-3126 errepidetik.

GILaren deskribapen laburra

Ozioko antiklinala EAEko eskala ertaineko egiturarik ikusgarrienetako bat da. Egitura honetan, gainera, Triasetik Goi Kretazeora bitarteko serie ia oso bat ikus daiteke, bai eta sekuentzia tertziario eta kuaternario diskordanteak ere.



Antiklinalaren itxiera; ikusten da ardatzaren albo bakoitzean okerdura desberdina dela.

E-W norabideko ardatz bat du antiklinalak, eta geruzek okerdura ia bertikalak dituzte egituraren alde banatan. Triaseko buztinek eratzen dute gunea; haren alboetan, Behe Jurasikoko karniolak ageri dira, estratifikazio argirik gabe. Serie jurasikoa nahiko osatua da; kareharri eta tuparriak ditu, ammonite, belemnite, lamelibrankio, gasteropodo eta ekinodermatuen fauna ugariz hornitua. Jurasikoko kareharrien ondoren, Behe Kretazeoko materialak ageri dira: hareia, lohi eta buztin horixka, zurixka eta gorrixken segida terrigeno bat da (Utrillas formazioa), kareharri hareatsu eta hareharri gorritz koroatua. Haien atzetik, Goi Kretazeoko kareharri bioklastikoen tarte bat ageri da.

Haranaren albo banatan, morfologia tabularreko bi muino txiki daude, metro batzuetako malkar bertikalak dituztenak. Zelatik hegoaldera, su-hesi batean zehar, egiazta daiteke konglomeratu poligenikoen pakete bat dela. 50 cm-rainoko harkosko karbonatatu eta hareatsuz osatuta daude konglomeratuak; hegoalderantz poliki (5-10°) okertzen den gorputz tabular bat definitzen dute, eta diskordantzia angeluarrean antolatuta daude material jurasikoen gainean. Matrisea buztintsua eta hareatsua da; zementu kareduna du, eta tonu gorritzak. Pliozenokoa da, antza. Ziur asko, alubio-konoen metakinak dira, arro endorreikoak inguratzen zituzten erliebeak desegitean eratuak.

Behatzeko punturik onena

Oziotik, edo, bestela, hilerriko bidetik zeharkaldi bat eginez.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 10, GIL 51, GIL 74, GIL 128, GIL 129.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 117, GIL 118, GIL 119, GIL 120, GIL 121.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Eguiluz, L. eta Llanos, H. (1986). *Itinerario geológico de la estructura de Ocio. IV simposio nacional sobre enseñanza de la geología*, Gasteiz, 423.-441 or.
- IGME (zenbait egile eta urte). *Mapa geológico nacional a escala 1:50.000 (MAGNA)*, 138. eta 170. or. (Argantzun eta Haro).
- IGME (1973). *Estudio geológico de la Provincia de Álava*. Mem. IGME, 83. zk.
- Ramírez del Pozo, J. (1971). *Bioestratigrafía y microfacies del Jurásico y Cretácico del Norte de España (Región Cantábrica)*. Mem. IGME, 78. zk.
- Ramírez del Pozo, J. (1973). *Síntesis geológica de la Provincia de Alava*. Edit.: EAE. Gasteiz.
- Eguiluz, L.; Llanos, H. eta Ramírez del Pozo (1986). *Excursiones geológicas en la Provincia de Alava*. IV Simposio sobre enseñanza de la geología. 4, 521-536.
- EVE , 138-III eta 170-I.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.